



OIARTZUNGO  
UDALA

# 2019-2023

## LEGEALDIRAKO KUDEAKETA PLANA



## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. BALIOAK.....	4
3. HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	5
4. KONPROMISOAK ETA LAN-LERROAK.....	7
4.1. Sozioekonomia .....	7
4.2. Ongizatea.....	8
4.3. Kultura .....	10
4.4. Herri antolaketa eta mugikortasuna .....	12
4.5. Hizkuntz normalizazioa.....	14
4.6. Feminismoa .....	15
4.7. Ingurumena eta energia .....	16
4.8. Kirola eta jarduera fisikoa.....	18
4.9. Gazteria .....	19
4.10. Hezkuntza .....	19
4.11. Parte-hartzea, gardentasuna eta komunikazioa .....	20
4.12. Barne antolaketa .....	21
5. KONPROMISO ETA LAN-LERROEN TAULA .....	23

## 1. SARRERA

Oiartzun herri bizia da, irekia eta parte-hartzailea. Herritarren ongizatea eta berdintasuna ditu oinarri. Oiartzungo Udalak, bere jardunarekin, herri-izaera hori mantendu eta areagotu nahi du.

Kudeaketa plan honek jasotzen ditu helburu hau betetzeko 2019-2023 legealdian gobernu taldeak martxan jarri nahi dituen ildo-estrategikoak eta lan-lerroak. Bertan jasotzen diren proiektuak EH Bilduk 2019ko udal-hauteskundeetako herri programan bildu zituen proposamenak dira.

Herri programak eta kudeaketa plan honek azken urteetan Udalean egindako lanaren jarraikotasuna bermatu nahi dute. Planaren oinarria aurreko legealdietan EH Bilduk Oiartzungo Udalean egindako lana da. Programa osatzerako garaian aurretik martxan jarritako proiektuei jarraipena eman nahi izan zaie. Gainera, lan-lerro berriak ere proposatzen ditu, beti ere **herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin**. Era berean, **lan egiteko modu baten isla** ere bada: **parte-hartzailea, Udala eta herritarren elkarlana ardatz** duena. **Oiartzuarren eskura dagoen Udala izateko bokazioa** jasotzen du planak.

Programa osatzerako garaian kontuan izan dira Udaleko sail ezberdinetako teknikarien proposamen eta gomendioak. Gainera, osaketan arlo ezberdinetan lan egiten duten edo interesa duten 100 oiartzuarrek parte hartu dute: ongizatean, sozio ekonomian, herri antolaketan, feminismoan, kulturaren, euskaran, gazterian, kirolean, hezkuntzan, ingurumenean...

Programak oiartzuarren gehiengoaren babesa jaso zuen eta beraz, bertan jasotzen ziren konpromisoek osatzen dute 2019-2023 legealdiko kudeaketa plana. Aurreko urteetan hasitako bidetik jarraituz, **Oiartzun hobetzen jarraitzeko proiektu estrategikoak** jasotzen ditu.

Agintaldi-plan hau, kudeaketa dokumentua den heinean, erabilgarria da gobernu-taldearentzat, Udalarentzat eta herritarrentzat: gobernu-taldearentzat, hauteskunde-programa gobernu-programa bihurtzeko, bertan jasotako helburuak lortzeko beharrezkoak diren ekintza-planak zehazteko eta betetze mailaren jarraipena egiteko. Udalarentzat, lau urte hauetan egin beharreko lana zehazteko, lehentasunak identifikatzeko eta jarraitu beharreko norabidea marrazteko. Azkenik, herritarrentzat ere baliagarria da, gardentasuna areagotzen duelako eta aukera ematen duelako udal-gobernuaren estrategia identifikatzeko.

2019-2023 epean gauzatzeko 4 helburu estrategiko, 70 konpromiso eta 182 lan-lerro barnebiltzen ditu kudeaketa planak. Hauek bete ahal izateko, lan-lerro bakoitza Udaleko sail zehatz bati izendatuko zaio eta saileko zinegotziak eta enplegatu publikoak izango dute hau gauzatzeko ardura izango dutenak.

## 2. BALIOAK

Hurrengo ataletan zehaztuko diren helburu, konpromiso eta lan-lerro guztiek balio komun batzuk dituzte. Herriaren eta Udalaren izaeraren isla dira. Oiartzun berezko izaera eta nortasuna duen herria da, eta kudeaketa plan honek izaera hori bultzatuko du.

- **Berdintasuna.**

Oiartzun pertsona guztien arteko berdintasuna bultzatzen duen herria da, pertsona horien jatorria, arraza, sinesmena edo sexua edozein izanda ere. Aniztasuna eta elkarbizitza ditu oinarri. Oiartzungo Udalak ere oiartzuarrak izango ditu oinarri eta hauen berdintasuna bultzatuko du etengabe. Herritarrek dituzten eskubideak eta beharrak bermatzea izango da gure jardunaren ardatz nagusia.

- **Parte-hartzailea eta irekia.**

Oiartzun herri bizia da, sortzailea eta dinamikoa. Elkarrekin eta herri mugimendu zabala du. Parte-hartze eta elkarlan hau izan dira herriko kohesioa mantentzeko gako nagusia. Udalaren jarduna ere elkarlanean eta gertutasunean oinarrituko dugu. Eragileen lana babesteaz gain, herritarren parte-hartzea eta konpromisoa sustatuko ditugu.

- **Euskalduna.**

Euskaraz bizi den herria da Oiartzun. Euskarak egin gaitu herri eta gure izaera mantentzeko lanean jarraituko dugu. Horregatik, gure politika guztietako zeharlerroa da euskara eta gure ekimen guztietan txertatuta dagoen irizpidea da.



### **3. HELBURU ESTRATEGIKOAK**

Lau dira 2019-2023 legegaldian Oiartzungo Udalak bete nahi dituen erronka nagusiak. Hurrengo atalean zehaztuko diren konpromiso eta lan-lerroekin lau helburu estrategiko hauek gauzatu nahi dira:

#### **3.1. Herritarren ongizatea eta berdintasuna bermatu, pertsonak babestu.**

Oiartzuar guztiak kontuan hartuz, denon bizi-kalitatea bermatzeko lan egitea da Oiartzungo Udalaren konpromisoa, oiartzuar guztiak elkarrekin aurrera egin eta inor atzean utziko ez duen herria egiteko. Herri kohesioaren alde lan egingo dugu, ez baitago garapenik gizarte-babesik eta gizarte-kohesiorik gabe.

#### **3.2. Oiartzungo kultur eskaintza zaindu, indartu eta herriko ondarea zabaldu.**

Oiartzun herri bizia eta aktiboa da. Kultur eskaintza zabala eta anitza du. Kultur elkarte asko daude herrian eta hauek dira bereziki Oiartzungo kultur eskaintza sustatu eta antolatzen dutenak, protagonistak. Udaletik baliabideak eta laguntza eskaintzen jarraituko dugu, aberastasun hau mantendu eta bermatzeko. Kultur arloan hartuko ditugun konpromiso eta martxan jarriko ditugun lan-lerroak eragile hauen beharrak erantzuteko izango dira.

Eragile guzti hauen arteko kohesioa sustatzea ere oinarrizkoa izango da, kultura euskalduna, feminista, inklusiboa eta herritarra bermatzeko. Beraz, Udala eta eragileen arteko harremanaz gain, herriko eragile eta elkarten arteko harreman eredia zehaztu eta kudeaketa amankomuna bultzatzea helburu estrategikoa da.

Kultur ondare aberatsa du Oiartzunek. Zer izan garen eta zer garen ezagutu eta transmititzeko lan egingo dugu, Oiartzungo historia ezagutu eta zabaltzeko. Herriko ondarea berreskuratzeaz gain, herritarren esku jartzeko lan egingo dugu.

#### **3.3. Elikadura burujabetza lortzeko proiektuak martxan jarri.**

Jaten duguna ez dugu guk sortzen. Honek dependentzia eta kanpoko eragile eta erabakien menpe egotea eragiten digu. Herritar askeak izan nahi badugu, garrantzitsua da jaten duguna ere bertan ekoiztea. Gure elikagaiak bertan ekoizti eta kontsumitzeko proiektuak martxan jarriko ditugu, elikadura burujabetza lortzeko.

#### **3.4. Energia trantsiziorako programak abian jarri eta pausoak ematen hasi.**

Herri honek urte luzez bizirautea nahi badugu, beharrezkoa izango da gure kontsumo ohiturak aldatu eta lurra eta inguruak zaintzea. Bide horretan, energia



kontsumoa gutxitu eta kontsumitzen duguna berriztagarria izateko pausoak emango ditugu. Autokontsumo energetikoa sustatuko dugu. Gainera, mugikortasun jasagarria bultzatzen jarraituko dugu.

## 4. KONPROMISOAK ETA LAN-LERROAK

Oiartzun hobetzen jarraitu eta herritarren bizi-kalitatea bermatzeko 70 konpromiso eta 182 lan-lerro jasotzen ditu 2019-2023 kudeaketa planak. 12 ataletan banatuta daude eta denak Udaleko sail ezberdinei esleitu zaizkie. Horrela, kudeaketa planak jasotzen dituen helburu eta konpromisoak betetzen direla ziurtatu eta Udaleko sail guztien lana hemen zehaztutakoarekin lerrokatu nahi da.

Kudeaketa plan hau udal-ekintzari laguntzeko tresna da. Aurretik aipatutako balioak dira hemen proposatuko den ekintza planaren oinarria.

### 4.1. Sozioekonomia

2015etik lan handia egin du Oiartzungo Udalak arlo sozioekonomikoan herriko egoera ezagutzeko eta diagnostiko horren baitako planteamenduak egin eta proiektuak martxan jartzeko: lehenengo sektorea indartzeko Lurbizi egitasmoa martxan jarri da, merkataritza txikia indartzeko plangintza egin da Iturriarekin elkarlanean eta industria poligonoen diagnostikoa eta biziberritzeko plangintza ere osatu da.

Egindako diagnostikoaren ondorioak oinarri hartuta eta hasitako bideari jarraipena emanaz, datozen urteetan sektorez sektore eman beharreko pausoak jasotzen dira kudeaketa plan honetan.

Plan estrategikoan industriak garrantzia handia du: Oiartzunen sektore honetan sortzen dira kalitatezko lanpostu gehien eta balio erantsiko aktibitatea sortzea da Udalaren interesa. Herriko industrialdeetan 7.000 pertsonak egiten dute lan. Arnasgune ekonomiko garrantzitsua dira herriarentzat eta eskualdearentzat. Horregatik, aurreko legegaldian Lintzirin eremuko biziberritzearekin egin bezala, industriguneen biziberritzearekin jarraitzea ezinbestekoa izango da kalitatezko lanpostuak mantendu eta proiektu, enpresa eta lanpostu berriak erakartzeko.

Elikadura burujabetzan ere aurrerapausoak emateko lan-lerroak aurreikusten ditu kudeaketa planak.

Hauek dira sozioekonomian ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K1. Lehenengo sektorea: larreak zaindu eta produkzio orekatua (ez intentsiboa) sustatu.
  - L1. Lurbizi proiektuarekin jarraitu eta proiektu berriak bilatu.
  - L2. Lur bankua sortzen joan eta ekoizle berrien esku uzteko hitzarmenak landu.

- L3. Larre plana osatu ganaduzaleekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.
  - L4. Fraisororekin harremana sustatu, sektore honetan ikasketak bultzatu eta laneratzea laguntzeko.
  - L5. Herriko ekoizleen azoka berreskuratu eta salmenta zuzena bultzatu.
  - L6. Herriko ikastetxeetako jantokietan Oiartzunen ekoiztako produktuak erabiltzeko proiektua martxan jarri.
- K2. Bigarren sektorea: industrialdeak zaindu, azpiegiturak berritu, aktibitatea bultzatu eta inbertsio berriak erakarri.
    - L7. Poligonoen kudeaketa eguneratu. Eremu pribatua eta publikoaren arteko elkarlana sustatu.
    - L8. Azpiegiturak berritu.
    - L9. Enpresa berriak erakarri.
    - L10. Oarsoaldea Garapen Agentziaren plan estrategikoa martxan jarri, lidergoa eskuratu.
  - K3. Hirugarren sektorea: merkataritza txikia sustatu eta kontsumo eredu berriak bultzatu.
    - L11. Lokal hutsetan merkataritza txikia irekitzeko diru-laguntza lerroa sortu.
    - L12. Iturrirekin elkarlan zuzena izan.
  - K4. Turismoa: baliabideak bideratu eta turismo mota definitu.
    - L13. Turismo bulego berria sortu Arizmendienean.
    - L14. Arritxuloren zerbitzuaren kontratazioa eguneratu.
    - L15. Autokarabanentzat egokia izan daitekeen aparkalekua egiteko proiektua landu.
  - K5. Oarsoaldeko plan estrategikoa egin beste instituzioekin elkarlanean.
    - L16. Plan estrategikoa onartu eta Oarsoaldeko Garapen Agentzia plan estrategikora egokitu.

## 4.2. Ongizatea

Aurretik zehaztu moduan, ongizatea izango da Oiartzungo Udalaren ildo estrategiko nagusienetarikoa. Oiartzuar guztien bizi-kalitatea bermatzen jarraituko dugu, herritarrek bizi duina izan dezaten.



Azken urteetan Udalak lan handia egin du ongizate arloan pausoak emateko: saila indartu da eta proiektu berriak martxan jarri dira.

Hauek dira ongizatean ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K6. Gizarte zerbitzuen lana balioan jarri, prestigioa landu.
  - L17. Ongizate sailaren garrantzia zabaldu eta egiten den lana komunikatu.
- K7. Gizarte zerbitzuen itxaron zerrenda gutxitu.
  - L18. Langile kopurua handitu.
  - L19. Antolaketa egitura berria egonkortu.
- K8. Sailaren azpiegiturak hobetu eta bertaratzeko gaur egun dauden oztopo arkitektonikoak gutxitu.
  - L20. Saila Ferminene etxera pasa, Landetxeko eraikina bukatzen denean.
- K9. Etxez etxeko zerbitzua indartu.
  - L21. Etxez etxeko zerbitzua aste bukaeretara zabaldu.
  - L22. Etxez etxeko langile kopurua handitu.
  - L23. Etxez etxeko langileen koordinazio figura sortu.
- K10. Jubilatuen elkartearekin elkarlana sustatu eta dituzten beharrei erantzun.
  - L24. Erretiratuentzat espazio duina sortu; Gazte Izanak elkarte Landetxeko eraikin berrian kokatu eta beraiekin gunea elkarlanean diseinatu.
- K11. Helduentzako beste ekimenekin jarraitu.
  - L25. Torri Gukin eta Bidelagun proiektuei jarraipena eman.
- K12. Herriko gaixo psikikoak lagundu.
  - L26. Arraztalo elkarte lagundu eta beraien lana eta garrantzia balioan jarri.

- L27. Arraztalo eskualdeko proiektu bihurtu eta enplegu zentro berezia izatea lortzen lagundu.
- L28. Ereiten proiektuarekin jarraitu.
- K13. Adin txikikoekin lan egiteko babes programak landu.
  - L29. Adin txikikoen mahairekin jarraitu eta zabaldu.
  - L30. Prebentzioa landu.
  - L31. Kuadrillategi egitasmoa birformulatu eta euskararen lanketaz gain beste lanketa batzuk ere sustatu (berdintasuna, kontsumo prebentzioa...).
  - L32. DBH 3 eta 4ko gazteentzat Kuadrillategiren antzeko formatu bat sortu.
- K14. Etorri berrien harrera lanarekin jarraitu.
  - L33. Harrera plana birpentsatu eta indartu.
- K15. Gizarte kontseilua birdefinitu.
  - L34. Gizarte kontseilua indartu, praktikotasuna areagotu eta herriko eragileek parte hartzeko aukerak eskaini.
- K16. Zaintzaren lanketarekin hasi.
  - L35. Zaintzaren garrantzia aitortu eta zaintzaileen lana balioan jarri.
  - L36. Udaletik zaintzaren inguruan herri eragile eta norbanakoekin egin daitekeen elkarlana definitu.
- K17. Bazterkeria egoerara ez iristeko prebentzioa sustatu.
  - L37. Oiartzuarrak bazterkeria egoerara ez iristeko prebentzio lanak egin, herriko ikastetxeekin eta eragileekin elkarlanean.

### **4.3. Kultura**

Oiartzun herri sortzailea da. Urtean zehar hamarnaka eta hamarnaka ekitaldi antolatzen dira. Hauetariko asko zuzenean herritarrek antolatzen dituzte, Udalarekin elkarlanean. Elkarlan hau mantendu eta sustatzea ezinbestekoa da Oiartzungo Udalarentzat. Zentzu horretan, herri eragileekin lanean jarraitzeko eta beraien beharrak erdigunean jartzeko borondate osoa dugu.

Hauek dira kulturan ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K18. Kultur eragileak babestu, lagundu eta aktibazioa bultzatu.
  - L38. Herriko kultur eragileen beharrak erdigunean jarri eta erantzun.
  - L39. Herriko kultur eragileekin elkarlana sustatu. Herriko kultur eragileen lanak bateratu, eskaintza bakarra eta koordinatua lortuz.
- K19. Kultur aretoa egin eta herriko eragileekin funtzionamendua diseinatu.
  - L40. Kultur aretoko obra bukatu.
  - L41. Kultur aretoaren diseinua eta funtzionamenduan herriko kultur eragileekin elkarlanean definitu.
- K20. Herriko lokalen erabilera arautu eta dirulaguntza ordenantza egokitu.
  - L42. Herriko kultur eragileek erabiltzen dituzten Udalaren jabetzako lokalak erabili ahal izateko hitzarmenak egin.
  - L43. Herriko kultur eragileei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan hobekuntzak sartzen joan irizpideetan eta adierazleetan.
- K21. Liburutegiko ikasle gelaren eskaintza mantendu.
  - L44. Ikasle gelarako aurreko legealdian zehaztutako ordutegi berria mantendu.
- K22. Auzoetako festa batzordeak zaindu eta jarraikortasuna bermatu.
  - L45. Auzoko festa batzordeen egoera eta beharrak ezagutzeko bilerak egin.
  - L46. Auzoetako festa batzordeetara gazteak erakartzen lagundu.
- K23. Xanistebanetako festa batzordea sustatu eta eraldatu.
  - L47. Batzordearen izaeran aldaketak ematen jarraitu elkarlanerako eta adostasunak bilatzeko taldea izan dadin.
- K24. Herriko ondarea jaso eta zabaldu.

- L48. Arizmendienea etxea berreskuratu (ezaugarriak mantenduz), lorategia barne.
- L49. Arizmendienea etxeak ondare izendapena lortzeko prozesua martxan jarri.
- L50. Herriko ondarearen bilduma egin.
- L51. Herriko ondarea herritarren eskura jarri (Arizmendienea etxean, interneten, ikastetxeekin lantzeko formatuak sortu).
- L52. Herriko ondarearen web orria sortu.
- L53. Eliza ondare bezala aitortu.
- L54. Eliza eta Arizmendienea ezagutzeko proiektua martxan jarri.
- L55. Herriko museoaren eskaintzaren berri eman, Oarsoaldeko Garapen Agentziarekin batera.
- L56. Herriko museoak egoki mantendu.
- L57. Arditturri meategiaren web orria berritu.

#### **4.4. Herri antolaketa eta mugikortasuna**

Auzoak dira Oiartzungo esentzia. Oiartzun zortzi herri txikiz osatutako herri handia dela esan dezakegu. Auzo guztiek osatzen dute Oiartzun, eta aldi berean bakoitzaren izaera eta egoera bereziak dira. Auzo batzarretan jasotzen diren ekarpenak izan ohi dira auzoetako hobekuntzak egiteko tresna nagusia. Zentzu horretan, auzotarrekin elkarlanean, auzoen izaera propioa mantentzen jarraitzeko konpromisoa dugu, auzoetako bizitza bultzatuz eta azpiegitura eta irisgarritasunean hobekuntzak eginaz.

Oiartzun azaleraz oso herri handia da. Auzoak dispentsatuak daude eta orografiak ere eragin handia du mugikortasunean. Behar bereziak sortzen ditu honek. Auzoen arteko loturak egiteko ezinbestekoa da oinezko bideak egoki edukitzea. Bidegorriak garrantzia handia du horretarako. Gainera, herri barruko garraio publikoko eskaintza sustatu eta zabalduko dugu.

Hauek dira herri antolaketan eta mugikortasunean ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K25. Auzoetako eskaera eta beharrak erantzun.
  - L58. Auzo batzarretan jasotzen diren hobekuntza lanak egiten.
- K26. Auzoetan obra lanak egin.
  - L59. Altzibar behea biziberritu.
  - L60. Cadarsoko kutsaduraren azterketa egin.

- L61. Altzibarren frontoia egiteko proiektua egin.
- L62. Espaloiak berritu.
- L63. Aparkalekuak berritu.
- L64. Iturriotz eta Altzibarren aparkaleku berriak sortu.
- L65. Argiztapena berritu eta puntu arriskutsuak hobetu.
  
- K27. Bidegorri sarea hobetu eta zabaldu.
  - L66. Bidegorrian mantenu eta txukunketa lanak egin.
  - L67. Iriberry-Ergoien bidegorriko lotura egin.
  - L68. Gurutzeko bidegorria egin.
  
- K28. Oinezko bideak zabaldu eta mantendu.
  - L69. Ikastolatik Urmendira joateko espaloia egin.
  - L70. Herriko espaloiak txukun mantendu.
  
- K29. Trafikoa berrordenatu oinezkoen segurtasuna hobetzeko.
  - L71. Elizalden Elorrondo kalea eta Santusene kalearen ordenazioa.
  - L72. Tronpeoko malda norabide bakarrekoea egin.
  
- K30. Herriko garraio publikoa sustatu eta zabaldu.
  - L73. Xorrola autobus zerbitzua larunbat goizetara zabaldu.
  - L74. Xorrola autobus zerbitzuan Mugi txartela erabiltzeko hitzarmena egin.
  - L75. Taxibus zerbitzua mantendu eta hobetu.
  
- K31. Mugikortasun plana egin.
  - L76. Mugikortasun plana onartu eta ekintza plana diseinatu.
  
- K32. Etxebizitza: beharrak aztertu eta alokairu soziala sustatu.
  - L77. Urkabe Baitan alokairu publikoko etxebizitzak eta etxebizitza dotazionalak egiteko proiektua martxan jarri Eusko Jaurlaritzarekin.
  - L78. Etxebizitza bulegoa mantendu.
  - L79. Etxe hutsak alokairu duinera bideratzeko programarekin jarraitu.
  - L80. Etxebizitza hutsen zerga errekaruak mantendu.

#### 4.5. Hizkuntz normalizazioa

Oiartzun herri euskalduna da, euskararen arnagunea. Hala ere, honek ez du esan nahi dena egina dagoenik eta horregatik herria euskalduntzen eta euskararen erabilera sustatzen jarraituko dugu.

Hauek dira hizkuntz normalizazioan ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K33. Udaleko euskara plana garatzen joan.
  - L81. Teknikari eta zinegotzien inplikazioa indartu.
  - L82. Sail ezberdinak bilduko dituen koordinazio mahai baten beharra dagoen baloratu.
  - L83. Komunikazioan hizkuntz irizpideak berrikusi eta beharrezkoa bada, egokitu.
- K34. Ahozotasuna: egitasmoak mantendu eta indartu.
  - L84. Arnaguneen lantaldea mantendu eta Euskal Herri mailan sortzen diren kanpainak eutsi.
  - L85. Oiartzuarren baitan egitasmoan oinarrituta ekintzak bultzatu (jolasak, erronkak, ipuinak...).
  - L86. Kuadrillategiren bidez gazteen artean oiartzuera sustatu.
  - L87. Oiartzun Irratia herriko hizkera bultzatzeko erabili.
  - L88. Euskaraldiaren lantaldea zabaldu, indartu.
- K35. Euskalgintza guztia toki fisiko berean bildu.
  - L89. Euskara sustatzea helburu duten herriko eragile ezberdinak Landetxeko eraikinean kokatu, elkarlana bultzatzeko.
- K36. Herriko euskalgintzarekin harremana sustatu.
  - L90. Hizkuntz normalizaziorako sailaren eta herriko euskalgintzaren arteko elkarlanarekin jarraitu.
- K37. Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera ziurtatu.
  - L91. Gabeziak identifikatzen jarraitu irtenbideak eskaintzeko.
  - L92. Elkarte eta kultur gileekin lanketa egin.
  - L93. Kiroldegiaren jarraipena egin.
- K38. Lan mundua euskalduntzea sustatu.

- L94. Lanin egitasmoarekin jarraitu.
- K39. Helduen euskalduntzea sustatu.
  - L95. Helduen euskalduntzea doako egin.

#### **4.6. Feminismoa**

Feminismoa da pertsonen arteko berdintasuna lortzeko bidea. 2015-2019 legealdian Udalean Feminismo saila sortu dugu eta berdintasunean urratsak emateko eta norabideak markatzeko gaian aditua den teknikaria kontratatu dugu. Gizarte-ongizate saileko atal bat izatetik sail propioa izatera pasa da horrela. Berdintasun batzordea ere sortu dugu, udalbatzarretan edo gobernu batzordean lantzen diren gaiei jarraipena egiteko.

Hainbat arlotan eragiten hasi gara: festa parekideen alde lan egiten, formakuntza saioak antolatzen udal langileentzat eta herritarrentzat, ahalduntzeko ekintzak antolatzen...

Saila sortzearekin batera beharrak eta lehentasunak identifikatu ditugu eta plangintza estrategiko bat sortzen ari gara. Plana kontraste fasean dago eta laster onartuko da.

Hauek dira feminismoan ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K40. Berdintasun plana onartu eta gauzatu.
  - L96. Oiartzungo I. Plan Feminista onartu.
  - L97. Plana Udaleko eta herriko jardun eta programazioan txertatu.
  - L98. Planak jasotzen dituen lan-lerroak, egitasmoak eta ekintzak martxan jarri.
- K41. Kontratazioan genero irizpideak txertatu.
  - L99. Udaleko kontratu ezberdinetan eta langileen hautaketa prozesuetan genero irizpideak txertatu.
- K42. Herri antolaketa eta garraioan feminismo ikuspegia txertatu.
  - L100. Langileei formakuntza eskaini.

- L101. Ikuspegi feminista txertatzen dela ziurtatzeko baliabideak eskaini eta jarraipena egin.
- K43. Indarkeria identifikatzeko prestakuntza, prebentzioa eta protokoloa martxan jarri.
  - L102. Indarkeria identifikatzeko eta prebenitzeko formakuntza saioak eskaini herritarrei.
  - L103. Autodefentsa tailerrekin jarraitu.
  - L104. Indarkeria kasuei erantzuteko protokoloa sortu herriko eragileekin elkarlanean (mugimendu feminista, Osakidetza, ikastetxeak...).
  - L105. Ertzaintzarekin interoperabilitatea lortu.
- K44. Auzoko eta herriko festetan parekidetasunaren lanketa egin.
  - L106. Jai batzordeetan festa parekideak lantzeko irizpideak sartzen joan.
  - L107. Jai batzordeekin elkarlana sustatu festa parekideak lortzeko.

#### **4.7. Ingurumena eta energia**

Oiartzungo Udalak ingurumen politika propioak bultzatzen jarraituko du. Errespetuan oinarritutako ingurumen politikarekin, bizi garen ingurua zaintzen jarraituko dugu. Lan handia dugu horretarako: edateko ur-sistema propioa, baso politika jasagarria, hondakinen gaikako bilketa %80tik gora mantendu... Orain arte egindako lanarekin jarraitzeaz gain, konpromiso eta lan-lerro berriak jarriko ditugu martxan.

Energia trantsizioan lanean jarraituko dugu 2019-2023 legealdian. Udaleko instalakuntzetan energia kontsumoa murrizteko aurrezte planekin jarraitzeaz gain, kontsumitzen dugun energia berriztagarria izan dadin pausoak ematen hasiko gara.

Hauek dira ingurumenean eta energian ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K45. Hondakinen gaikako bilketa %80tik gora mantendu.
  - L108. Puntu gatazkatsuak konpondu.
  - L109. Kale garbiketan hondakinak jasotzen prozesuan hobekuntzak egin.
  - L110. Kontzientziazio eta komunikazio lanak egin.



- L111. Hondakinen murrizketa bultzatu, baita autokonposta eta auzokonposta bezalako egitasmoak ere.
- L112. Hondakinen ordenantza berritu.
- K46. Ur-hornidura hobetzen jarraitu.
  - L113. Hoditeriaren berritze lanekin jarraitu.
  - L114. Saneamenduan berritze lanekin jarraitu eta azterketa egin (kolektorea falta diren lekuak, plangintza...).
- K47. Lorategi eta parkeak mantendu.
  - L115. Lorategi eta parkeetan txukunketa eta mantenu lanak egin.
  - L116. Arizmendieneako lorategia egokitu eta herritarren eskura jarri.
  - L117. Ezkiak oinezko bideetan sortzen dituen arazoak konpondu.
- K48. Mendi eta basoen kudeaketa jasagarria bultzatu.
  - L118. Herriko mendi eta basoetan garbiketa lanak egin.
  - L119. Zuhaitz landaketa berri guztiak bertako espezieekin egin.
  - L120. Ganaduzaleekin elkarlanean larre-plana egin.
  - L121. Brigada eta ganaduzaleekin elkarlanean larreen garbiketa lanak egin.
- K49. Erreka eta ibaiak garbi mantendu.
  - L122. Erreka eta ibaietan garbiketa lanak egin.
  - L123. Erreka eta ibaietara erortzen den hondakin kopurua gutxitzeko neurriak hartu.
  - L124. Bertako espezieen birlanaketa lanak egin.
- K50. Zaratak gutxitu.
  - L125. Zaraten ordenantza oinarritzat hartuz eta ekintza plana martxan jarri.
- K51. Energia trantsizioan aurrerapausoak ematen jarraitu.
  - L126. Luminarian eta Udal eraikinetan energia kontsumoa murrizteko ekintza-planekin jarraitu.
  - L127. Kontsumoa murrizteko plan hau beste eraikinetara zabaldu (eskola, kiroldegia...).

- L128. Instalakuntza berrietan digitalizazio eta monitorizazio sistemak ezarri.
- L129. Autokontsumoa: Udal eraikinetan kontsumitzen den energia berriztagarria izan dadin energia berriztagarrien instalakuntza berriak egin.
- L130. Udalerako ibilgailu elektrokoak erosi.
- L131. Herritarren artean energia kontsumoa murrizteko ohituren kontzientziazio eta komunikazioa gauzatu.
- L132. Autokontsumoa: Energia kooperatibak sortzeko aukera aztertu.
- L133. Energia eta klima plana idatzi.

#### **4.8. Kirola eta jarduera fisikoa**

Jarduera fisikoa herritarren osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko tresna da. Horregatik, Udaletik bizi ohitura osasuntsuak sustatzeko, kirol aukera zabala eskaintzen jarraituko dugu, herriko eragileekin elkarlanean. Kirola egiteko herriko azpiegiturak mantendu eta hobetzeko ere lana egingo dugu.

Hauek dira kirolean ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K52. Kirol instalakuntzetan hobekuntza lanak egin.
  - L134. Karla Lekuona futbol zelaiko instalakuntzak berritu eta zelaia inguratzen duen hormigoizko hesia aldatu.
  - L135. Auzo gehiagotan helduek kirola egiteko makinak jarri.
  - L136. Herriko frontoi ezberdinetan margoketa eta mantenu lanak egin.
- K53. Jarduera fisikoa egiten ez dutenen artean ohitura bilakatzeko lana egin.
  - L137. Abitu programarekin jarraitu eta eragile ezberdinekin elkarlana zabaldtu.
  - L138. Kirol astea antolatzen jarraitu.
- K54. Udal kirol kontseilua bultzatu.
  - L139. Kirol kontseiluan parte-hartzea sustatu.
  - L140. Kirol sariarekin jarraitu.
- K55. Kirolean emakumeen parte-hartzea bultzatu.

- L141. Kirolean emakumeen partehartzea bermatzeko neurriak hartu (hitzarmenetan klausulak gehitu...).

#### **4.9. Gazteria**

Hauek dira gazterian ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K56. Gazteen etxebizitza beharrari irtenbidea emateko alternatibak bilatu.
  - L142. Urkabe Baitako alokairu sozialeko etxebizitzak gazteentzat bideratu.
- K57. Gazteen lokalen hausnarketa egin.
  - L143. Gazteen erabilerarako utzitako lokalen hitzarmenak eguneratu.
  - L144. 14-18 urte bitarteko gazteen aisialdi eskaintza sustatzeko gaztelekua sortzeko aukera baloratu.

#### **4.10. Hezkuntza**

Hauek dira hezkuntzan ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K58. 0-3 Urmendi proiektuarekin jarraitu.
  - L145. Kalitatezko eskaintza ematen jarraitzea bermatu.
  - L146. Urmendi proiektua herrian zabaltzen lagundu.
- K59. Hezkidetzaren lanketa.
  - L147. Herriko ikastetxeetan hezkidetzaren lanketa bultzatzen jarraitu.
- K60. Herriko hizkera, kultura eta ondarea kurrikulumetan txertatu.
  - L148. Herriko hizkera, kultura eta ondarea kurrikulumetan txertatu ahal izateko materiala sortu eta zabaldu.
- K61. Ludoteka zerbitzuarekin jarraitu.

- L149. Udal ludoteka eta familien txokoa mantendu.
- K62. Adin txikikoekin proiektuak mantendu eta martxan jarri.
  - L150. Adin txikikoen mahaia mantendu, herriko eragileekin ekimen koordinatuak bultzatzeko.
  - L151. Eskolaz kanpoko ekintzak babestu, herriko kultura eta ondarea bultzatzeko eta haurren garapena sustatzeko ezinbestekoak baitira.
  - L152. Adin txikikoen hizkuntza ohituretan eragiteko egitasmoak txertatu hezkuntza arautu eta ez arautuan.

#### **4.11. Parte-hartzea, gardentasuna eta komunikazioa**

Kudeaketa planak jasotzen dituen balioak bermatzeko ezinbesteko garrantzia dute Udalaren eguneroko jardunean parte-hartzeak, gardentasunak eta komunikazioak.

Oiartzungo Udalak irekia izateko bokazio osoa du eta martxan jartzen dituen egitasmoetan herritarren parte-hartzea sustatu nahi du. Oiartzun elkarrekin egitea da gobernu talde honen ardatz nagusia. Herritarrek dira gure oinarria. Ezinbestekoa da herriaren kudeaketa herritarrekin elkarlanean egitea eta horretarako tresnak jarriko ditugu.

Herriak dituen erronkei administrazioak eta herritarrek elkarlanean erantzun behar diegula sinesten dugu, horrela lortuko baitugu berdintasuna oinarri izango duen eta inor atzean utziko ez duen herria. Udala herritarren bizi-kalitatea hobetzeko tresna da, eta horregatik elkarlana izango da udal-jardunaren oinarria.

Elkarlana eta parte-hartzea lortzeko, beharrezkoa da Udal gardena izatea eta administrazioaren eta herritarren arteko aldebiko komunikazioa bermatzea.

Hau lortzeko, hauek dira parte-hartzean, gardentasunean eta komunikazioan ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K63. Parte-hartzeko tresnak eskaini eta parte-hartzea sustatu.
  - L153. Auzo-batzarrak sustatu.
  - L154. Arloz arloko eragile eta Udalaren elkarlanerako mahai eta foroak mantendu.
  - L155. Landetxe eraikina, funtzionamendua eta kudeaketa eragile eta herritarrekin zehaztu.
  - L156. Herritarren eskaera guztiak hilabeteko epean erantzun.
  - L157. Sare publiko-komunitarioak sortu.

- K64. Udalaren jardunean gardentasuna bermatu.
  - L158. Web gunean gardentasunari lotutako informazio guztia argitaratu.
  - L159. Publizitate aktiboa bermatu.
  - L160. Web gunean gardentasun ataria sortzen hasi.
  - L161. Herritarrek informazioa eskuratzeko egindako eskaera guztiak hilabeteko epean erantzun.
  
- K65. Udalaren eta herritarren artean komunikazioa sustatu eta hobetu.
  - L162. Komunikazio plana sortu eta onartu.
  - L163. Udalaren eta herriko eragileen elkarlaneko proiektuak balioan jarri.
  - L164. Proiektu estrategikoen komunikazio kanpainak egin.
  - L165. Gaur egun sortuta dauden komunikazio kanalen egokitasuna, iristeko gaitasuna eta aldizkakotasuna aztertu eta behar diren aldaketak egin.
  - L166. Web gune berria martxan jarri.

#### **4.12. Barne antolaketa**

Zehaztutako konpromiso eta lan-lerroak aurrera eramateko, beharrezkoa da barne antolaketan ere aldaketak egitea. Administrazio eraginkor batekin bakarrik lortuko ditugu kudeaketa plan honetan zehaztutako proiektuak martxan jartzea eta aurrera begira gizarteak dituen erronkei erantzutea. Horregatik, herritarren beharrei hurbiltasunez, eraginkortasunez eta gardentasunez erantzungo dion Udala sortzen jarraituko dugu, kalitatezko zerbitzua emateko etengabeko hobekuntzan jarraituko dugu, Udala garai berrietara egokitzeko.

Hauek dira barne antolaketa ditugun konpromisoak eta betetzeko martxan jarriko ditugun lan-lerroak:

- K66. Barne komunikazioa sustatu.
  - L167. Barne komunikazio plana idatzi.
  - L168. Enplegatu publikoekin konpromiso, lan-lerro eta proiektu hauek azaltzeko aurkezpen eta jarraipen bilerak egin.
  - L169. Langile berrientzat harrera plana sortu.
  - L170. Barne komunikazioa modu jarraituan bermatzeko intraneta sortu.
  
- K67. Administrazio elektronikoan aurrerapausoak eman.

- L171. Udaleko jardunean paperetik elektronikora aldaketa eman.
  - L172. Herritarrek tramite guztiak elektronikoki egiteko aukera izango dutela ziurtatu.
  - L173. Tramitazio elektronikoa bultzatu.
  - L174. Herritarrak Udalarekin elektronikoki harremantzeko gaitu.
  - L175. Udalean administrazio elektronikoa arautzeko ordenantza egin.
- K68. Langileria egonkortu eta baldintza egokiak bermatu.
    - L176. Langileria egonkortzeko hautaketa prozesuak martxan jarri.
    - L177. Langileen baldintza egokiak direla bermatu.
- K69. Udal prozedimenduak dokumentatu.
    - L178. Udalean dauden prozedura guztiak dokumentatu eta idatziz jartzeko plana egin.
    - L179. Prozedimenduen efizientzia hobetu eta azkartu, herritarrei zerbitzu azkarra eskaintzeko.
- K70. Kudeaketa ekonomiko jasangarria bermatu.
    - L180. Udalaren egoera ekonomiko saneatua eta jasangarria ziurtatu.
    - L181. Dirulaguntzen plan estrategikoa berritu eta jarraipena egin.
    - L182. Udalaren jabetzakoak diren ondasunen inbentarioa eguneratu.

## 5. KONPROMISO ETA LAN-LERROEN TAULA

	<b>KONPROMISOAK</b>	<b>LAN-LERROAK</b>
<b>SOZIOEKONOMIA</b>	K1. Lehenengo sektorea: larreak zaindu eta produkzio orekatua (ez intentsiboa) sustatu.	L1. Lurbizi proiektuarekin jarraitu eta proiektu berriak bilatu.
		L2. Lur bankua sortzen joan eta ekoizle berrien esku uzteko hitzarmenak landu.
		L3. Larre plana osatu ganaduzaleekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.
		L4. Fraisororekin harremana sustatu, sektore honetan ikasketak bultzatu eta laneratzea laguntzeko.
		L5. Herriko ekoizleen azoka berreskuratu eta salmenta zuzena bultzatu.
		L6. Herriko ikastetxeetako jantokietan Oiartzunen ekoiztako produktuak erabiltzeko proiektua martxan jarri.
	K2. Bigarren sektorea: industrialdeak zaindu, azpiegiturak berritu, aktibitatea bultzatu eta inbertsio berriak erakarri.	L7. Poligonoen kudeaketa eguneratu. Eremu pribatua eta publikoaren arteko elkarlana sustatu.
		L8. Azpiegiturak berritu.
		L9. Enpresa berriak erakarri.
		L10. Oarsoaldea Garapen Agentziaren plan estrategikoa martxan jarri, lidergoa eskuratu.
	K3. Hirugarren sektorea: merkataritza txikia sustatu eta kontsumo eredu berriak bultzatu.	L11. Lokal hutsetan merkataritza txikia irekitzeko diru-laguntza lerroa sortu.
		L12. Iturrirekin elkarlan zuzena izan.
	K4. Turismoa: baliabideak bideratu eta turismo mota definitu.	L13. Turismo bulego berria sortu Arizmendienean.
		L14. Arritxuloren zerbitzuaren kontratazioa eguneratu.
		L15. Autokarabanentzat egokia izan daitekeen aparkalekua egiteko proiektua landu.
	K5. Oarsoaldeko plan estrategikoa egin beste instituzioekin elkarlanean	L16. Plan estrategikoa onartu eta Oarsoaldeko Garapen Agentzia plan estrategikora egokitu.
<b>ONGIZATEA</b>	K6. Gizarte zerbitzuen lana balioan jarri, prestigioa landu.	L17. Ongizate sailaren garrantzia zabaldu eta egiten den lana komunikatu.
	K7. Gizarte zerbitzuen itxaron zerrenda gutxitu.	L18. Langile kopurua handitu.
		L19. Antolaketa egitura berria egonkortu.
	K8. Sailaren azpiegiturak hobetu eta bertaratzeko gaur egun dauden oztopo arkitektonikoak gutxitu.	L20. Saila Fermiñene etxera pasa, Landetxeko eraikina bukatzen denean.
	K9. Etxez etxeko zerbitzua indartu.	L21. Etxez etxeko zerbitzua aste bukaeretara zabaldu.

		L22. Etxez etxeko langile kopurua handitu.
		L23. Etxez etxeko langileen koordinazio figura sortu.
	K10. Jubilatuen elkartearekin elkarlana sustatu eta dituzten beharrei erantzun.	L24. Erretiratuentzat espazio duina sortu; Gazte Izanak elkarte Landetxeko eraikin berrian kokatu eta beraiekin gunea elkarlanean diseinatu.
	K11. Helduentzako beste ekimenekin jarraitu.	L25. Torri Gukin eta Bidelagun proiektuei jarraipena eman.
	K12. Herriko gaixo psikikoak lagundu.	L26. Arraztalo elkarte lagundu eta beraien lana eta garrantzia balioan jarri.
		L27. Arraztalo eskualdeko proiektu bihurtu eta enplegu zentro berezia izatea lortzen lagundu.
		L28. Ereiten proiektuarekin jarraitu.
	K13. Adin txikikoekin lan egiteko babes programak landu.	L29. Adin txikikoen mahairekin jarraitu eta zabaldu.
		L30. Prebentzioa landu.
		L31. Kuadrillategi egitasmoa birformulatu eta euskararen lanketaz gain beste lanketa batzuk ere sustatu (berdintasuna, kontsumo prebentzioa...).
		L32. DBH 3 eta 4ko gazteentzat Kuadrillategiren antzeko formatu bat sortu.
	K14. Etorri berrien harrera lanarekin jarraitu.	L33. Harrera plana birpentsatu eta indartu.
	K15. Gizarte kontseilua birdefinitu.	L34. Gizarte kontseilua indartu, praktikotasuna areagotu eta herriko eragileek parte hartzeko aukerak eskaini.
	K16. Zaintzaren lanketarekin hasi.	L35. Zaintzaren garrantzia aitortu eta zaintzaileen lana balioan jarri.
		L36. Udaletik zaintzaren inguruan herri eragile eta norbanakoekin egin daitekeen elkarlana definitu.
	K17. Bazterkeria egoerara ez iristeko prebentzioa sustatu.	L37. Oiartzuarrak bazterkeria egoerara ez iristeko prebentzio lanak egin, herriko ikastetxeekin eta eragileekin elkarlanean.
<b>KULTURA</b>	K18. Kultur eragileak babestu, lagundu eta aktibazioa bultzatu.	L38. Herriko kultur eragileen beharrak erdigunean jarri eta erantzun.
		L39. Herriko kultur eragileekin elkarlana sustatu. Herriko kultur eragileen lanak bateratu, eskaintza bakarra eta koordinatua lortuz.
	K19. Kultur aretoa egin eta herriko eragileekin funtzionamendua diseinatu.	L40. Kultur aretoko obra bukatu.
		L41. Kultur aretoaren diseinua eta funtzionamenduan herriko kultur eragileekin elkarlanean definitu.
	K20. Herriko lokalen erabilera arautu eta dirulaguntza ordenantza egokitu.	L42. Herriko kultur eragileek erabiltzen dituzten Udalaren jabetzako lokalak erabili ahal izateko hitzarmenak egin.
L43. Herriko kultur eragileei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan hobekuntzak sartzen joan irizpideetan eta adierazleetan.		
K21. Liburutegiko ikasle gelaren eskaintza mantendu.	L44. Ikasle gelarako aurreko legealdian zehaztutako ordutegi berria mantendu.	



	K22. Auzoetako festa batzordeak zaindu eta jarraikortasuna bermatu.	L45. Auzoko festa batzordeen egoera eta beharrak ezagutzeko bilerak egin.
	K23. Xanistebanetako festa batzordea sustatu eta eraldatu.	L46. Auzoetako festa batzordeetara gazteak erakartzen lagundu.
	K24. Herriko ondarea jaso eta zabaldu.	L47. Batzordearen izaeran aldaketak ematen jarraitu elkarlanerako eta adostasunak bilatzeko taldea izan dadin.
		L48. Arizmendienea etxea berreskuratu (ezaugarriak mantenduz), lorategia barne.
		L49. Arizmendienea etxeak ondare izendapena lortzeko prozesua martxan jarri.
		L50. Herriko ondarearen bilduma egin.
		L51. Herriko ondarea herritarren eskura jarri (Arizmendienea etxean, interneten, ikastetxeekin lantzeko formatuak sortu).
		L52. Herriko ondarearen web orria sortu.
		L53. Eliza ondare bezala aitortu.
	L54. Eliza eta Arizmendienea ezagutzeko proiektua martxan jarri.	
	L55. Herriko museoaren eskaintzaren berri eman, Oarsoaldeko Garapen Agentziarekin batera.	
	L56. Herriko museoak egoki mantendu.	
L57. Arditturri meategiaren web orria berritu.		
<b>HERRI ANTOLAKETA ETA MUGIKORTASUNA</b>	K25. Auzoetako eskaera eta beharrak erantzun.	L58. Auzo batzarretan jasotzen diren hobekuntza lanak egiten.
	K26. Auzoetan obra lanak egin.	L59. Altzibar behea biziberritu.
		L60. Cadarsoko kutsaduraren azterketa egin.
		L61. Altzibarren frontoia egiteko proiektua egin.
		L62. Espaloiak berritu.
		L63. Aparkalekuak berritu.
		L64. Iturriotz eta Altzibarren aparkaleku berriak sortu.
		L65. Argiztapena berritu eta puntu arriskutsuak hobetu.
	K27. Bidegorri sarea hobetu eta zabaldu.	L66. Bidegorrian mantenu eta txukunketa lanak egin.
		L67. Iriberrri-Ergoien bidegorriko lotura egin.
		L68. Gurutzeko bidegorria egin.
	K28. Oinezko bideak zabaldu eta mantendu.	L69. Ikastolatik Urmendira joateko espaloia egin.
		L70. Herriko espaloiak txukun mantendu.
	K29. Trafikoa berrordenatu oinezkoen segurtasuna hobetzeko.	L71. Elizalden Elorrondo kalea eta Santusene kalearen ordenazioa.
		L72. Tronpeoko malda norabide bakarrekoa egin.
	K30. Herriko garraio publikoa sustatu eta zabaldu.	L73. Xorrola autobus zerbitzua larunbat goizetara zabaldu.
L74. Xorrola autobus zerbitzuan Mugi txartela erabiltzeko hitzarmena egin.		

HITZKUNTZ NORMALIZAZIOA		L75. Taxibus zerbitzua mantendu eta hobetu.
	K31. Mugikortasun plana egin.	L76. Mugikortasun plana onartu eta ekintza plana diseinatu.
	K32. Etxebizitza: beharrak aztertu eta alokairu soziala sustatu.	L77. Urkabe Baitan alokairu publikoko etxebizitzak eta etxebizitza dotazionalak egiteko proiektua martxan jarri Eusko Jaurlaritzarekin.
		L78. Etxebizitza bulegoa mantendu.
		L79. Etxe hutsak alokairu duinera bideratzeko programarekin jarraitu.
		L80. Etxebizitza hutsen zerga errekarquak mantendu.
	K33. Udaleko euskara plana garatzen joan.	L81. Teknikari eta zinegotzien inplikazioa indartu.
		L82. Sail ezberdinak bilduko dituen koordinazio mahai baten beharra dagoen baloratu.
		L83. Komunikazioan hizkuntz irizpideak berrikusi eta beharrezkoa bada, egokitu.
	K34. Ahozkotasuna: egitasmoak mantendu eta indartu.	L84. Arnasguneen lantaldea mantendu eta Euskal Herri mailan sortzen diren kanpainak eutsi.
L85. Oiertuarren baitan egitasmoan oinarrituta ekintzak bultzatu (jolasak, erronkak, ipuinak...).		
L86. Kuadrillategiren bidez gazteen artean oiertzueria sustatu.		
L87. Oiertzun Irratia herriko hizkera bultzatzeko erabili.		
L88. Euskaraldiaren lantaldea zabaldu, indartu.		
K35. Euskalgintza guztia toki fisiko berean bildu.	L89. Euskara sustatzea helburu duten herriko eragile ezberdinak Landetxeko eraikinean kokatu, elkarlana bultzatzeko.	
K36. Herriko euskalgintzarekin harremana sustatu.	L90. Hizkuntz normalizaziorako sailaren eta herriko euskalgintzaren arteko elkarlanarekin jarraitu.	
K37. Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera ziurtatu.	L91. Gabeziak identifikatzen jarraitu irtenbideak eskaintzeko.	
	L92. Elkarte eta kultur gileekin lanketa egin.	
	L93. Kiroldegiaren jarraipena egin.	
K38. Lan mundua euskalduntzea sustatu.	L94. Lanin egitasmoarekin jarraitu.	
K39. Helduen euskalduntzea sustatu.	L95. Helduen euskalduntzea doako egin.	
FEMINISMOA	K40. Berdintasun plana onartu eta gauzatu.	L96. Oiertzungo I. Plan Feminista onartu.
		L97. Plana Udaleko eta herriko jardun eta programazioan txertatu.
		L98. Planak jasotzen dituen lan-lerroak, egitasmoak eta ekintzak martxan jarri.
	K41. Kontratazioan genero irizpideak txertatu.	L99. Udaleko kontratu ezberdinetan eta langileen hautaketa prozesuetan genero irizpideak txertatu.
	K42. Herri antolaketa eta garraioan feminismo ikuspegia txertatu.	L100. Langileei formakuntza eskaini.
L101. Ikuspegi feminista txertatzen dela ziurtatzeko baliabideak eskaini eta jarraipena egin.		

<b>INGURUMENA ETA ENERGIA</b>	K43. Indarkeria identifikatzeko prestakuntza, prebentzioa eta protokoloa martxan jarri.	L102. Indarkeria identifikatzeko eta prebenitzeko formakuntza saioak eskaini herritarrei.
		L103. Autodefentsa tailerrekin jarraitu.
		L104. Indarkeria kasuei erantzuteko protokoloa sortu herriko eragileekin elkarlanean (mugimendu feminista, Osakidetza, ikastetxeak...).
		L105. Ertzaintzarekin interoperabilitatea lortu.
	K44. Auzoko eta herriko festetan parekidetasunaren lanketa egin.	L106. Jai batzordeetan festa parekideak lantzeko irizpideak sartzen joan.
		L107. Jai batzordeekin elkarlana sustatu festa parekideak lortzeko.
	K45. Hondakinen gaikako bilketa %80tik gora mantendu.	L108. Puntu gatazkatsuak konpondu.
		L109. Kale garbiketan hondakinak jasotzen prozesuan hobekuntzak egin.
		L110. Kontzientziazio eta komunikazio lanak egin.
		L111. Hondakinen murrizketa bultzatu, baita autokonposta eta auzokonposta bezalako egitasmoak ere.
		L112. Hondakinen ordenantza berritu.
	K46. Ur-hornidura hobetzen jarraitu.	L113. Hoditeriaren berritze lanekin jarraitu.
		L114. Saneamenduan berritze lanekin jarraitu eta azterketa egin (kolektorea falta diren lekuak, plangintza...).
	K47. Lorategi eta parkeak mantendu.	L115. Lorategi eta parkeetan txukunketa eta mantenu lanak egin.
		L116. Arizmendieneako lorategia egokitu eta herritarren eskura jarri.
		L117. Ezkiak oinezko bideetan sortzen dituen arazoak konpondu.
	K48. Mendi eta basoen kudeaketa jasangarria bultzatu.	L118. Herriko mendi eta basoetan garbiketa lanak egin.
		L119. Zuhaitz landaketa berri guztiak bertako espezieekin egin.
		L120. Ganaduzaleekin elkarlanean larre-plana egin.
		L121. Brigada eta ganaduzaleekin elkarlanean larreen garbiketa lanak egin.
	K49. Erreka eta ibaiak garbi mantendu.	L122. Erreka eta ibaietan garbiketa lanak egin.
		L123. Erreka eta ibaietara erortzen den hondakin kopurua gutxitzeko neurriak hartu.
		L124. Bertako espezieen birlanaketa lanak egin.
	K50. Zaratak gutxitu.	L125. Zaraten ordenantza oinarriztat hartuz ekintza plana martxan jarri.
	K51. Energia trantsizioan aurrerapausoak ematen jarraitu.	L126. Luminarian eta Udal eraikinetan energia kontsumoa murrizteko ekintza-planekin jarraitu.
		L127. Kontsumoa murrizteko plan hau beste eraikinetara zabaldu (eskola, kiroldegia...).
		L128. Instalakuntza berrietan digitalizazio eta monitorizazio sistemak ezarri.

		L129. Autokontsumoa: Udal eraikinetan kontsumitzen den energia berriztagarria izan dadin energia berriztagarrien instalakuntza berriak egin.
		L130. Udalerako ibilgailu elektrokoak erosi.
		L131. Herritarren artean energia kontsumoa murrizteko ohituren kontzientziazio eta komunikazioa gauzatu.
		L132. Autokontsumoa: Energia kooperatibak sortzeko aukera aztertu.
		L133. Energia eta klima plana idatzi.
<b>KIROLA ETA JARDUERA FISIKOA</b>	K52. Kirol instalakuntzetan hobekuntza lanak egin.	L134. Karla Lekuona futbol zelaiko instalakuntzak berri eta zelaia inguratzen duen hormigoizko hesia aldatu.
		L135. Auzo gehiagotan helduek kirola egiteko makinak jarri.
		L136. Herriko frontoi ezberdinetan margoketa eta mantenu lanak egin.
	K53. Jarduera fisikoa egiten ez dutenen artean ohitura bilakatzeko lana egin.	L137. Abitu programarekin jarraitu eta eragile ezberdinekin elkarlana zabaldu.
		L138. Kirol astea antolatzen jarraitu.
	K54. Udal kirol kontseilua bultzatu.	L139. Kirol kontseiluan parte-hartzea sustatu.
		L140. Kirol sariarekin jarraitu.
	K55. Kirolean emakumeen parte-hartzea bultzatu.	L141. Kirolean emakumeen partehartzea bermatzeko neurriak hartu (hitzarmenetan klausulak gehitu...).
<b>GAZTERIA</b>	K56. Gazteen etxebizitza beharrari irtenbidea emateko alternatibak bilatu.	L142. Urkabe Baitako alokairu sozialeko etxebizitzak gazteentzat bideratu.
	K57. Gazteen lokalen hausnarketa egin.	L143. Gazteen erabilerarako utzitako lokalen hitzarmenak eguneratu.
		L144. 14-18 urte bitarteko gazteen aisialdi eskaintza sustatzeko gaztelekua sortzeko aukera baloratu.
<b>HEZKUNTZA</b>	K58. 0-3 Urmendi proiektuarekin jarraitu.	L145. Kalitatezko eskaintza ematen jarraitzea bermatu.
		L146. Urmendi proiektua herrian zabaltzen lagundu.
	K59. Hezkidetzaren lanketa.	L147. Herriko ikastetxeetan hezkidetzaren lanketa bultzatzen jarraitu.
	K60. Herriko hizkera, kultura eta ondarea kurrikulumetan txertatu.	L148. Herriko hizkera, kultura eta ondarea kurrikulumetan txertatu ahal izateko materiala sortu eta zabaldu.
	K61. Ludoteka zerbitzuarekin jarraitu.	L149. Udal ludoteka eta familien txokoa mantendu.
	K62. Adin txikikoekin proiektuak mantendu eta martxan jarri.	L150. Adin txikikoen mahaia mantendu, herriko eragileekin ekimen koordinatuak bultzatzeko.
		L151. Eskolaz kanpoko ekintzak babestu, herriko kultura eta ondarea bultzatzeko eta haurren garapena sustatzeko ezinbestekoak baitira.

		L152. Adin txikikoen hizkuntza ohituretan eragiteko egitasmoak txertatu hezkuntza arautu eta ez arautuan.
PARTE-HART, GARD. KOM	K63. Parte-hartzeko tresnak eskaini eta parte-hartzea sustatu.	L153. Auzo-batzarrak sustatu.
		L154. Arloz arloko eragile eta Udalaren elkarlanerako mahai eta foroak mantendu.
		L155. Landetxe eraikina, funtzionamendua eta kudeaketa eragile eta herritarrekin zehaztu.
		L156. Herritarren eskaera guztiak hilabeteko epean erantzun.
		L157. Sare publiko-komunitarioak sortu.
	K64. Udalaren jardunean gardentasuna bermatu.	L158. Web gunean gardentasunari lotutako informazio guztia argitaratu.
		L159. Publizitate aktiboa bermatu.
		L160. Web gunean gardentasun ataria sortzen hasi.
		L161. Herritarrek informazioa eskuratzeko egindako eskaera guztiak hilabeteko epean erantzun.
	K65. Udalaren eta herritarren artean komunikazioa sustatu eta hobetu.	L162. Komunikazio plana sortu eta onartu.
		L163. Udalaren eta herriko eragileen elkarlaneko proiektuak balioan jarri.
		L164. Proiektu estrategikoen komunikazio kanpainak egin.
L165. Gaur egun sortuta dauden komunikazio kanalen egokitasuna, iristeko gaitasuna eta aldizkakotasuna aztertu eta behar diren aldaketak egin.		
L166. Web gune berria martxan jarri.		
BARNE ANTOLAKETA	K66. Barne komunikazioa sustatu.	L167. Barne komunikazio plana idatzi.
		L168. Enplegatu publikoekin konpromiso, lan-lerro eta proiektu hauek azaltzeko aurkezpen eta jarraipen bilerak egin.
		L169. Langile berrientzat harrera plana sortu.
		L170. Barne komunikazioa modu jarraituan bermatzeko intraneta sortu.
	K67. Administrazio elektronikoan aurrerapausoak eman.	L171. Udaleko jardunean paperetik elektronikora aldaketa eman.
		L172. Herritarrek tramite guztiak elektronikoki egiteko aukera izango dutela ziurtatu.
		L173. Tramitazio elektronikoa bultzatu.
		L174. Herritarrek Udalarekin elektronikoki harremantzeko gaitu.
		L175. Udalean administrazio elektronikoa arautzeko ordenantza egin.
	K68. Langileria egonkortu eta baldintza egokiak bermatu.	L176. Langileria egonkortzeko hautaketa prozesuak martxan jarri.
		L177. Langileen baldintza egokiak direla bermatu.
	K69. Udal prozedimenduak dokumentatu.	L178. Udalean dauden prozedura guztiak dokumentatu eta idatziz jartzeko plana egin.
		L179. Prozedimenduen efizientzia hobetu eta azkartu, herritarrei zerbitzu azkarra eskaintzeko.

	K70. Kudeaketa ekonomiko jasagarria bermatu.	L180. Udalaren egoera ekonomiko saneatua eta jasagarria ziurtatu.
		L181. Dirulaguntzen plan estrategikoa berritu eta jarraipena egin.
		L182. Udalaren jabetzakoak diren ondasunen inbentarioa eguneratu.